Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

# DOCENTIAZ16

## IRAKASKUNTZA JARDUERAREN EBALUAZIO PROGRAMA

# IKASTEGIKO KALITATE BATZORDEA (IKB)
# Ebaluazio plataformaren eskuliburua


Ebaluazio Zerbitzua
Servicio de Evaluación

GRADU ETA ERALDAKETA DIGITALERAKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE GRADO Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL

**[1]** ebaluazioa.ehu.eus helbidean Ikastegiko Kalitate Batzordeek beren ikastegian ematen den irakasgaia aukeratu duen irakaslearen txostena betetzeko atala duzue.

Lehenik eta behin, **LDAPa** sartuko dugu. Ondoren, **prozedura (Docentiaz)** eta **deialdia (16)** hautatuko ditugu, eta **"Bilatu"** botoia sakatuko dugu.




**[2]** Programan sartzen garenean, **"Nire ebaluazioak"** izeneko fitxa ikusiko dugu. Lehen aldiz sartzen garenean hutsik egongo da. Hortaz, ebaluazio-eskaerak deskargatzeko, beheko eskuinaldean dagoen **"Batzordeek ebaluazioak"** botoia sakatu behar da.



**[3]** Ondoren, landuko ditugun espedienteak gure buruari esleituko dizkiogu, Ikastegiko Kalitate Batzordean adostutako espediente-banaketa kontuan hartuta. Horretarako, dagozkigun espedienteak hautatu eta **“Ebaluazioa esleitu”** botoia sakatuko dugu. Espedienteak esleitu ondoren, ikuspegi honetatik desagertuko dira.




**[4]** Esleitutako espedienteak **“Nire ebaluazioak”** atalean agertuko dira. Atal horretara sartzeko, **“Nire ebaluazioak”** botoia sakatu behar dugu.




**[5]** Txostena betetzeko, landu nahi dugun espedientea hautatuko dugu eta **“Xehetasunetara joan”** botoia sakatuko dugu.



**[6] "Xehetasunetara joan"** botoia sakatu ondoren, txostenaren pantailara sartuko gara. Ezkerreko aldean, **"Espedientearen datuak"** atalean, DOCENTIAZen aurkeztu den pertsonaren datuak agertzen dira. **"Dokumentuak"** zutabean, berriz, txostena egiteko behar den dokumentazio guztia dago.

Dokumentuak deskargatzeko bi aukera daude:

- **"Dokumentuak deskargatu"** botoia sakatuz.
- Edo dokumentu bakoitza banaka deskargatuz, **"Ekintzak"** zutabearen azpian agertzen den gezi berdea sakatuta.

Kontsultarako eskuragarri egongo diren dokumentuak honako hauek dira, "Dokumentuak" ondoan agertzen den lupa sakatzen bilatu daitezke:

1. Ikaslearen gida.
2. GAUReko irakasgaiaren gida.
3. Egiaztatutako memoriako irakasgaiaren gida.
4. Arrakasta-tasak.
5. Inkestaren laburpena.
6. Irakasgaiaren txostena.
7. Sailaren txostena.
8. Titulazioaren txostena.
9. Irakasgaiaren koordinazio-ziurtagiria.




**[7]** Txostenaren atal guztiak ikusteko, banan-banan ireki daitezke edo **"Zabaldu denak"** botoia sakatu daiteke.


EHU
Ebaluazio-sistema
PREPRODUCCIÓN
Nire espedienteak
Nire ebaluazioak
Nire erabiltzailea
Menua
Ebaluazioak > Nire ebaluazioak > 2026/DPE_02/000019
Datu orokorrak
Prozedura
Docentiaz
Bertsioa
V2.2
Deialdia
16
Titularra
NOMBRE 01557-APELLIDO1 APELLIDO2
Espedientearen datuak
Ez dago emaitzarik eskuragarri
Dokumentuak
Dokumentuak deskargatu
Izena
Deskribapena
Ekintzak
Ez dago emaitzarik eskuragarri
0 -tik 0
Jarraian, aukeratutako espedientearen balorazioak erakusten dira, adierazleen arabera. Grisez, egungo etaparako esleituta ez dituen balorazioak erakusten dira.
Ebaluazioaren aurrerapena
0 -ren 9 Adierazleak
0%
1: 1. DIMENTSIOA. Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena
1.1: Irakasgaien irakaskuntza-plangintza
1.1.2: Ikasketa planari egokitutako ikaslearen gida
1.1.2.10: Ikaslearen Gidan zehaztutako gaitasunak eta/edo ikasketa-emaitzak bat datoz Titulazioaren Gidarekin?
Aldatu
1.1.2.11: Ikaslearen Gidan zehaztutako gaitasunak eta/edo ikasketa-emaitzak bat datoz Irakaskuntza Gidan (GAUR) aurreikusitakoekin?
Aldatu
1.1.2.12: Ikaslearen Gidak Ikasketa-planeko irakaskuntza-modalitateen aurreikuspenei erantzuten die?
Aldatu
2: 2. DIMENTSIOA. Emaitzak
2.1: Ikasleen arrakasta-tasak
2.1.1: Ikasleen arrakasta-tasak
Irakaslearen arrakasta-tasaren eta talde/mailaren batez bestekoaren arteko konparaketa. Arrakasta-tasaren eta talde/mailaren batez bestekoaren arteko konparaketan alde nabarmenik dago?
Aldatu
Balorazioa itxi
Zabaldu denak
Laburtu denak
Itzuli

**[8]** Galderak erantzuteko, **“Aldatu”** botoia sakatu behar dugu.




**[9]** Ondoren, erantzun beharreko galdera eta lagungarri izan daitezkeen azalpen-testuak ikusiko ditugu.



**[10]** Galderak erantzun ondoren, **"Gorde"** botoia sakatu behar da. Hurrengo galderara pasatzeko, **"Hurrengoa"** botoia sakatuko dugu.



**[11]** Galdera guztiak erantzun ondoren, **"Itzuli"** botoia sakatuko dugu eskuliburu honetako **7. urratsean** agertzen den ikuspegira itzultzeko.



**[12]** Une horretan, **"Balorazioa itxi"** botoia gorriz agertuko da, hau da, gaituta egongo da. Botoi hau sakatuta, espedientea amaituta egongo litzateke.

